

Langile baten gogoetak

Asier Arakistain Alberdi

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2009



Zumaiko Udala

*enkar
txanpa*



Langile baten gogoetak

Asier Arakistain Alberdi

Julene Azpeitia 22. ipuin lehiaketa

2009

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Asier Arakistain Alberdi (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Bada idazle bibote handidun bat iraganera so jartzen dena bestelako munduaren bila. Baina iraganean ez, hemen eta orain dago bestelako mundua. Lantegian sartzearekin batera hasten dena. Hobe esanda, aldagelan, buzoa jantzi, segurtasun zapatak, belarritako tapoiak, segurtasun betaurrekoak eta eskularruak jantzearekin batera hasten den bestelako mundua.

—Hilario...Hilario....HILARIO!!!

—Joder Tomas, zer deu. Goizean goiz marruka al habil?

—Ze marrua ta ze ostia, hasi hadi behingoz lanean.

Hasi gaitzen bada. Lehenengo moriseikia manualean jarri, atea ireki, forjako pieza besomuinean sartu, baraila estutu eta martxa. Bestelako munduko gizakiok, trenkatuak ditugu zentzumen guztiak. Ia guztiak. Bigarren moriseikia manualean jarri, atea ireki, pieza besomuinean sartu, baraila estutu eta martxa. Bakarra da salbu, eta berau behar luke mugatua. Usaimena. Hirugarren moriseikia manualean jarri, atea ireki, pieza besomuinean sartu, baraila estutu eta martxa. Ez baita edonolako kiratsa lantegikoa. Buelta lehenengo moriseikira. Horko olio, taladrina, burdin, kedar eta abarren usainak. Pieza atera, altura zein diametroak neurtu, beste pieza bat besomuinean sartu, baraila estutu, automatikoan jarri eta to! listo robotarentzat. Hala ere, bada misterio bat kirats honekin, zergatik dute lantegi guztiek kirats bera? Bigarren moriseikira joan, pieza atera, neurtu, automatikoan jarri eta hara beste bat robotarentzat. Ni ez naiz Patrick Suskind, baina hainbat urteren ondoren, ondorio batera iritsi naiz. Hirugarren moriseikira bueltatu, pieza atera, neurtu, beste pieza bat besomuinean sartu, baraila estutu, automatikoan jarri eta kito. Kirats hori ez da lantokiarena. Kargadorea forjako piezaz bete, robota martxan jarri eta eguneko lehen zigarroa pizteko tenorea. Langileon malaletxearena baizik.

—Oain e hola al gea?

—Hik ez al dek ikusten hiru tornuak lanean diala.

—Tornuak bai, baina ez artezteko makinak.

—Artezteko makinak? Hiri ze inporta zaizkik horiek, hi hona zelatan besterik ez hator.

—To to to Hilario, ez hadi hasi horrekin...bestela.

Hobe diat bai lanean jarraitzea. Tornuetako kargadoreak berriz bete, ijezgailua eta indukzioak automatikoa jarri, artezgailuko robota lanean jarri, eta buelta tornuen kargadoreak betetzera. Urrestillako frankotiratzaileak erraz aurkituko luke zer kontatua hemen lanean ariko balitz. Artezteko makinatik irteten diren piezak baztertu, diametroa zein alturak ondo direla ziurtatu, olioztatu eta kaxetan sartu. Laster ohartuko zen bi gizaki mota daudela bestelako munduan. Buelta tornuetako kargadoreetara, jaten eman eta buelta artezteko makinetara. Alde batetik, egiten duten lanagatik gutxiegi irabazten dutenak. Arteztutako piezak garbiak daudela ziurtatu, diametro zein alturak neurtu, olioztatu eta kaxetara. Bestetik, egiten dutenagatik gehiegi irabazten dutenak. Kaxa itxi, etiketa jarri eta listo biltegirako. Hala ere ziur naiz urrestildarrak hirugarren gizaki bat sortuko lukeela, gutxi egin eta gutxiago kobratuko luketenak.

Buelta tornuetako kargadoreetara, jaten eman eta buelta artezteko makinetara. Eskerrak arrainaren memoriarik ez dugun. Artezteko makinatik irteten diren piezak baztertu, diametroa zein alturak ondo direla ziurtatu, olioztatu eta kaxetan sartu. Bestela hemen edukiko gintuzkete. Tornuetako kargadoreak bete eta buelta artezteko makinetara. Hogeita lau orduan gora eta behera, piezak egin eta piezak egin.

—Aizak Hilario, hemen kafea. Goazen esertzera.

—Eskerrik asko Joxe.

Ez da egun bakar bat ere egongo Joxek huts egingo duenik, ordulari suitzar bat baino puntualago da kabroia.

—Ze Hilario, zer gertatu dek Mendigorrin?

Bestelako munduan dena ez da desberdina, hemen ere badira lagun onak eta ezinbestean jasan behar diren bestelako lagunak. Beltza bigarren hauetako bat da.

—Zertan galdetzek, hik erantzungo dek eta.

Hau da marka hau, zertan ez ote du zuzenean esan beharrekoak esaten besteak nahastu gabe.

—Duela astebete lau langile bota zizkieten kalera, eta atzo beste sei. Eta okerrena zera dek, inork ez duela ahotsik altxa. Hori dek marka!

—Hango berri ez zekiat, baina ziur nauk hemen berdina gertatuko huala. Nagusiak kaleratuen izenak aurrez plazaratuz gero, gainontzekoak ...tururu.

—Potruak. Halakorik hemen gertatuz gero, egurra Hilario, egurra.

—Egurra? Ez ezak adarrik jo, hire egurrak sutarako ere ez dik balio eta.

Hara bestea, bere ama salduko lukeenak borrokaren aldarria egiten, hobe dut bai lanean segi.

Lehen moriseikia manualetan jarri, atea ireki, txirbila kendu eta arbastatzeko zein finketako hortzak aldatu. Bestelako munduan denak dira gorriak. Pieza bat beso muinean sartu, arbaila estutu, atea itxi eta martxa. Hitzez. Bigarren moriseikia manualetan jarri, atea ireki, txirbila kendu eta arbastatzeko zein finketako hortzak

aldatu. Hala ere, borrokatzeko garaian. Pieza bat besomuinean sartu, arbaila estutu, atea itxi eta martxa. Denak zuri bihurtzen dira. Hirugarren moriseikia manulean jarri, atea ireki, txirbila kendu eta arbastatzeko zein finketako hortzak aldatu. Eskuardean darabilgun taladrinaren kolore berekoak. Pieza bat beso muinean sartu, arbaila estutu, atea itxi eta martxa.

Bada beste misterio bat ene barnean kezka baino barregura gehiago sortzen didana, baina misterioa azken finean. Lehen moriseikitik pieza atera, altura zein diametroak neurtu, beste pieza bat besomuinean sartu, baraila estutu eta automatikoan jarri. Zergatik ote Rubem Fonseca edo Ramon Diaz Eterovicen liburuak irakurtzerakoan. Bigarren moriseikira joan, pieza atera, neurtu, beste pieza bat besomuinean sartu, baraila estutu eta automatikoan jarri. Bertako protagonisten aurpegiak irudikatzerakoan ene lankideen aurpegiak ikusten ditudala? Hirugarren moriseikira bueltatu, pieza atera, neurtu, beste pieza bat besomuinean sartu, baraila estutu eta automatikoan jarri. Badakit erdiak putazale eta alkoholikoak izatea bere eragina izango duela. Kargadorea forjako piezaz bete, robota martxan jarri eta segi artezteko makinetara. Kontua da ez zaidala berdina gertatzen Jon Alonso edo Hasier Etxeberriaren protagonistekin. Diametroa zein alturak ondo direla ziurtatu, olioztatu eta kaxetan sartu. Ea Volgako batelariak egunen baten argitzen didaten misterioa.

—Aizak Hilario, artezteko makinetako bat gaizki daukak.

Kaguen zotz, belarriko tapoi eta segurtasun betaurreko puta hauekin Tomas hemen zenik ere ez diat sumatu.

—Gaizki, nola egongo dek makinetako bat gaizki bakarrarekin ari nauk lanean eta.

—Bakarrarekin habilela! Jartzak martxan oraintxe bertan. Mekaguen...

—Hi babua al haiz, zeozegatik egongo dek geldi.

—Hilario ez adarrik jo, zer du ba?

—Olioia falta zaiola, ez besterik.

—Olioia falta! Botaiok ba, hori ere nik esan behar al diat.

—Ez bahaiz hi heu Eroskira oliba olio bila joaten. Lantegi osoan ez zioz ez drosera ez eta azolla oliorik.

Eskerrak tarteka holako egoerak gertatzen diren eguna pixka bat alaitzeko. Hor joan duk ziztu batean, auskalo nora, buztana hankapean duela.

Tornuetako kargadoreak berriz bete, artezteko makinatik irteten diren piezak baztertu, diametroa zein alturak ondo direla ziurtatu, olioztatu eta kaxetan sartu. Gaur da eguna, oraindik ez dudala ulertzen nola langile baten helburua enkargatu izatea izan daitekeen. Buelta tornuetako kargadoreetara, jaten eman eta buelta artezteko makinara. Ez dago Carlos Taibo irakurri beharrik arrazoi nagusia dirua dela jakiteko. Arteztutako piezak garbiak daudela ziurtatu, diametro zein alturak neurtu, olioztatu eta kaxetara. Baina zerbait irakurri gero, ordaintzen den saria uste baino handiagoa dela ulertzeko baliagarri suertatuko litzaioke bati baino gehiagori. Ijzgaillua manulean jarri, pieza bat atera, ildasken diametroa zein ildasken arteko neurri desberdintasuna neurtu, beste pieza bat besomuinean sartu, baraila estutu eta listo automatikoan jartzeko. Ez baita nolana hiko, ordaintzen den saria. Tornuetako kargadoreak bete, artezteko makinatik piezak hustu, neurtu, olioztatu eta

kaxetan sartu. Pertsona bezala ezeztatzen dituzte, langile izaera desagerrarazi eta beraien meneko bihurtzen. Buelta tornuetako kargadoreetara, jaten eman eta buelta artezteko makineta. Enpresarien beharrak bere eginez, sekula ohartu gabe zirindola huts bihurtu direla. Arteztutako piezak garbiak daudela ziurtatu, diametro zein alturak neurtu, olioztatu eta kaxetara. Langileen eta enpresarien tarteko zirindola. Kaxa itxi eta listo bigarrena biltegitako.

Gaur egungo enpresariak ekialde urrunera begira bizi dira. Tornuetatik pieza bana hartu, altura zein diametroak neurtu eta segi kargadorea betetzen. Ez uste hango ekonomiaren beldur direlako. Buelta artezteko makineta, piezak baztertu, neurtu, olioztatu eta kaxara. Bost axola hauei Txina edo Indiako hazkundera. Tornuei jaten eman eta buelta artezteko makineta. Hauei inporta zaien bakarra Indiako gizartea da. Arteztutako piezak garbiak daudela ziurtatu, diametro zein alturak neurtu, olioztatu eta kaxetara. Ordaindu egingo lukete kabroi hauek, bestelako munduan kasta sistema ezartzearen.

—Goazen Hilario, hamaiketako egin beharko diagu ba.

—Esatet ba nik, Joxe hau erloju suitzar bat dela.

Mahaian eseri eta bakoitzak bereari ekin dio. Ziur inork ez duela

Eneko Landaburu ezagutzen, baina ederki aldatu dira hamaiketako ohitura bestelako munduan. Lekutan daude zahagi, urdaiazpiko eta antxoak latente garaiak. Orain udare, sagar, kiwi eta laranja nagusitasuna da hamaiketakoetan. Paradoxiko samarra, lanetik irten orduko, inor ez baita bere kopatxo hartu gabe etxeratzen. Hala da bestelako mundua.

Hamaiketako irentsi orduko, bere jakituriaren jabe egin gaitu Beltzak.

—Gaur egun bizi dugun krisia, amerikanoen errua da. Beraien finantza sistema puztuegia zegoen. Azkenean lehertu egin den arte, eta tximeletaren efektuagatik gu ere harrapatu gaitu.

—Orain ere ze ostia habil esaten. Hik bai dakakela tximeletak buruan.

—Hala dek Hilario, krisi hau subprimeengatik hasi huan.

—Subprime? Hi haiz hi babua, krisi hau askoz lehenagokoa dek.

—Ezetz Hilario, subprime hauek zabor hipotekak hituan, eta lehertzeaz zirela amerikanoek europarrei saldu zizkieten. Hor hasi huan krisia.

—Ezetz babua. Krisi hau bi hamarkadaz luzatzen ari dek gutxienez.

—Baina hi ze krisitaz ari haiz.

—Nortasun krisiaz motel, langileok bizi dugun nortasun krisiaz.

Lehen moriseikia manualetan jarri, pieza atera, altura zein diametroak neurtu, beste pieza bat besomuinean sartu, baraila estutu eta automatikoki jarri. Badut ohitura bitxi bat. Bigarren moriseikia manualetan jarri, pieza atera, altura zein diametroak neurtu, beste pieza bat besomuinean sartu, baraila estutu eta automatikoki jarri. Jendearen eskuetan erreparatzeko ohitura. Hirugarren moriseikia manualetan jarri, pieza atera, altura zein diametroak neurtu, beste pieza bat besomuinean sartu, baraila estutu eta automatikoki jarri. Eta ohitura honek beste misterio batetara eramaten nau. Robota martxan jarri eta buelta artezteko makineta. Euskal literaturatik inor bizi ez bada. Arteztutako piezak garbiak daudela ziurtatu, diametro zein alturak neurtu, olioztatu eta kaxetara. Zergatik dituzte euskal idazle guztiek atzazal zuriak?

—Ze Hilario, ijeztutako piezak neurtzeko astirik ez al dek izan?

—Jakín gabe hitzeitek ba.

—Jakín gabe? Ildasken arteko tolerantzia 60 mikrakoa da, eta hauek 63an daude.

—Etzak esan. Eta zerekin neurtu dituk ba?

—Horko mikrometroarekin, zerekin ba?

—Horkoarekin? Hik dauzkak potroak, mikrometro horrek mikrak irakurtzeko ez dik balio ta.

Babua izaterik bada, baina hainbesteraino. Azken txanpari ekitea izango da onena. Tornuetako kargadoreak bete, artezteko makinatik piezak hustu, neurtu, olioztatu eta kaxetan sartu. Bestelako munduak badu bere abantaila. Kaxa itxi, etiketa jarri eta listo biltegirako. Zentzumen gehienak mugatuak izatean. Tornuak manualean jarri, txirbila kendu eta arbastatzeko zein finketako hortzak aldatuak utzi. Buruak lan egiten duela. Erratza pasa. Bizitzako gauza ttipi zein handiz hausnartzeko denbora izaten dela. Eskuak garbitu eta bihar arte.

—Aizak Hilario, aurten ba al dek Julene Azpeitian aurkezteko asmorik?

—Ez zekiat Joxe, beti hemen sartuta...

—Hik esan dek.

—Nik esan?

—Bai motel, beti hemen baldin bahago... hemengoaz idatzi.

—Ez dek ideia txarra. Bestelako mundu bat badela ikasiko zian batek baino gehiagok.

—Hori dek Hilario, Joan Mari Irigoienek *Bestea da mundua* bezala.

—Ez hadi pasa Joxe, ez hadi pasa.